

Jakinarazten da Behin-behineko Alkateak, 2022ko abuztuaren 29an honako Dekretu hau eman duela:

“2022ko irailaren 10ean ospatuko den Bergarako San Martin ferian talo txosna jartzeko gune bat emateko lizitazioa arautuko zuten oinarriak onartuta eta eskaerak aurkezteko epea amaituta, 2022ko abuztuaren 26an zozketa eginda adjudikazioa nori egingo zaion erabakitzeko.

Zozketa akta kontuan izanda,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Talo txosna jartzeko gunea oinarrietan jasotako baldintzetan jartzeko baimena ematea Edurne Nagore Arbizu eta Miguel Saralegui Arribillagari, eta adieraztea uko egin nahi balioke abuztuaren 31 baino lehen jakinarazi behar dutela mezua ferixabergara@bergara.eus korreora bidalita.

BIGARRENA: Eskatera aurkeztu duten beste guztiekin itxaron zerrenda osatzea jarraian zehazten den hurrenkerarekin:

- Aitor Aurrekoetxea Lopez
- Miren Sorkunde Pedrosa Pellejero

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri ematea udaleko web orrian.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2022ko abuztuaren 30a

IDAZKARIA

